

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PAGOETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lurzatiak lagatzea 10.150 ehiza esparrua, Payueta izenekoa, berritzeko

VI-10.043 ehiza esparrua, Payueta izenekoa, berritzean sartuta egongo direnez horren mugen barruan dauden lurzati pribatu zein publiko guztiak, Pagoetako Administrazio Batzarra eragindako lurren jabeen baimenak biltzen ari da, Euskadiko ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzati publikoen artean onura publiko mendi (OPM) hauek sartzen dira:

– Onura publikoko 151 mendia. Juan Zamarro. OPM horretatik Pagoetako Kontzejuarena den zatia baino ez da hartuko.

– Onura Publikoko 192 Mendia. Dehesa, Pagoetako Kontzejuarena.

– Onura Publikoko 195 Mendia. Hayedillo, Pagoetako Kontzejuarena.

– Onura publikoko 199 mendia. Toloño, Urizaharreko Udalarena.

– Onura Publikoko 203 Mendia. Prado de La Laguna, Pagoetako Kontzejuarena.

Onura publikoko mendi horien kartografia espedientean jasota dago. Espediente hori kontzejuan dago interesdunen esku.

Horretarako, iritziko da ezen iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita 15 egun balioduneko epean horren kontrako idazkirik aurkezten ez dutenek baimen esangabea ematen dutela, eta ulertuko da kontzeju horiek baimena daukatela ezarritako epean kontra agertzen ez direnen lurzati eta finka guztiak sartzeko ehiza esparru horretan. Espedientea interesdunen esku dago.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako argitaratzen da.

Pagoeta, 2020ko uztailaren 14a

Lehendakaria

ALFREDO PINEDO RUIZ DE OCENDA